eta erantzunkide izan behar dute. Hori dela eta, 1/2022 Legegintzako Dekretuaren 51. artikulua adierazten du EAEko administrazio publikoek kontziliazio erantzukidea izateko modua jarri behar dutela, hainbat bitartekoren bidez: besteak beste –53.5 artikulua adierazten duenez–, arreta osagarri bat izatea haur eta lehen hezkuntzako eskolaldian (hau da, 2 eta 12 urte bitartean), ezarritako eskola ordutegi eta egutegiaz gainerakoa. Azkenik, toki-administrazioak alde horretatik duen erantzukizunaz, 7 j) artikulua argi eta garbi adierazten du udalen eginkizuna izango dela emakumei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak jartzea, duten izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.

Gure hirian badago udarako nolabaiteko eskaintza publiko eta pribatu bat, udaleku irekiena, eta zalantzarik ez dago oinarritzko eta beharrezko baliabidea dela hori eskolako egutegia eta lanekoa bateragarri egin ahal izateko.

Hala, eskaintza publikoan, 5-12 urte bitarteko umeentzako "Oporretan euskaraz" programa dugu nabarmen. Zozketa egin eta 600 plaza inguru esleitzen dira urtero udaleku horietan, 8:30-13:30 ordu bitartean izaten da eta haurtzaindegi-zerbitzua ere eskaintzen da nahi izanez gero. Eskaintza pribatua dezente handiagoa da: 7:45etik 15:30era bitarteko ordutegia dago; jantoki-zerbitzua, haurtzaindegi-zerbitzua eta garraio-zerbitzua eskaintzen dira, eta plaza eskaintza eskarira egokitzen da. Donostian 5-12 urteko 11.637 haur bizi da; beraz, den programa publiko bakarrak ez du eskari potentzialaren %5ik ere hartzen. Baina, gainera, programa horrek ez ditu 3 eta 4 urteko

papel en esta tarea y se hagan corresponsables en este sentido. Es por ello, que el DL 1/2022 señala en su artículo 51 que las administraciones públicas vascas han de facilitar la conciliación corresponsable por diferentes medios, entre ellos, según señala el artículo 53.5 aquellos que garanticen que a lo largo de la escolaridad infantil y primaria (esto es, entre los 2 y los 12 años) exista una atención complementaria, al horario y calendario escolar preestablecido. Por último y respecto a la responsabilidad de la administración local en este sentido, el artículo 7 j) señala claramente que las entidades locales deben establecer recursos y servicios para la conciliación corresponsable de la vida personal, laboral y familiar de mujeres y hombres, cuando por su naturaleza hayan de prestarse con carácter municipal.

De cara al verano, existe cierta oferta, tanto pública como privada, de colonias abiertas en la ciudad, que sin duda suponen un recurso básico y necesario para poder compaginar el calendario escolar con el laboral.

Respecto a la oferta pública, destaca el programa "Oporretan euskaraz", para menores de 5 a 12 años, adjudicándose por sorteo unas 600 plazas cada año, con un horario de 8.30-13.30 de la mañana, así como servicio de guardería opcional. Respecto a la oferta privada, es realmente más amplia, con horarios que abarcan desde las 7.45 hasta las 15.30, servicios de comedor, de guardería y de transporte opcionales, adecuándose la oferta de plazas a la demanda existente. En Donostia residen 11.637 menores de entre 5 y 12 años, por lo que la cobertura del único programa público existente no llega al 5% de la demanda potencial. Pero, además, este programa no

umeak hartzen, eta adin horretako 2.419 haur dira Donostian. Alegia, oro har, eskaintza publiko txikia dugula, eta, zehazki, 3 eta 4 urteko adinetarako eskaintza publikorik ez dagoela batere, nahiz eta programaren ezaugarri teknikoek aukera hori ematen duten.

Gai hori dagokien zinegotzi ordezkariak kontu horren gainean galdetu, eta, Euskara Sailaren zinegotzi arduradunak, adierazi zuen programaren helburua ez dela familien kontziliaziorako laguntza ematea; eta horrek oraindik eta etsigarriagoa bihurtzen du egoera, ez dagoela familiei kontziliazioan laguntzeko udal-programa publikorik esanahi luke eta. Gazteria Arloaren ardura duen zinegotziak, ordea, sartu zuen programa horren eginkizunetan kontziliaziorako laguntza izatearena ere. Hala, bada, ez dugu oso ondo ulertzen ea programa baten beraren definizio bat baino gehiago dagoen, edo 12 urtetik beherakoei eskaintako zerbitzuak elkarren artean planifikatzeko premia handiagoa dagoen. Nolanahi ere, ez zuten beste programarik aipatu, gurasoak lanean diren bitartean hurrei kalitateko zaintza emateko.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldeak dakarren KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio udaleku ireki programa bat jartzeko abian udan, 3 urtetik gorako umeentzat, auzoetara deszentralizatua, familiei lana eta familia eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzeko.

2.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio aurrekontu espezifiko bat bideratzeko 2026an, 3 urtetik

cubre a la población de 3 y 4 años, que en Donostia suponen 2.419 criaturas. Es decir, tenemos, en general una oferta pública escasa y concretamente, una oferta pública nula para las edades de 3 y 4 años, a pesar de que las características técnicas del programa permiten esta posibilidad.

Interpelados al respecto los Concejales Delegados correspondientes, el Delegado responsable del Departamento de Euskara señaló que el programa no tiene como objetivo la ayuda a la conciliación de las familias, lo que convierte el panorama en aún más desolador, puesto que estaríamos hablando de que no existe ningún programa público municipal que ayude a las familias en la conciliación. El Delegado responsable del Área de Juventud, por su parte, sí consideraba entre las funciones de ese programa la ayuda a la conciliación, por lo que no entendemos muy bien si existen varias definiciones del propio programa o una necesidad de mayor planificación conjunta de los servicios dedicados a menores de 12 años. En cualquier caso, no se mencionó ningún otro programa mediante el cual las familias puedan proporcionar cuidados de calidad a las criaturas durante la jornada laboral.

Por todo ello el grupo municipal de EH Bildu presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno poner en marcha un programa de colonias abiertas en verano, para menores a partir de 3 años y descentralizado por barrios, que ayude a las familias en la conciliación laboral, familiar y personal.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a dedicar un presupuesto específico en el año 2026 para impulsar

gorako umeentzako programa batzuk bultzatu eta familiei lana eta familia eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzeko udan.

3.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio udan 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat diren programa guztiak batera aztertzeko, familien kontziliazio-beharrak ere kontuan hartu eta konponbidea emanaz horiei.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23an

Sandra Barrenetxea Díez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

programas destinados a menores a partir de 3 años que ayuden a las familias en la conciliación laboral, familiar y personal en la época estival.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de Gobierno a analizar de forma global los programas existentes durante el verano destinados a criaturas entre 3 y 12 años, teniendo en cuenta también las necesidades de conciliación de las familias y dando solución a estas.

En San Sebastián, a 23 de mayo de 2025

Sandra Barrenetxea Díez
Concejal del Grupo municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Sandra Barrenetxea Díez andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Iñigo Garcia Villanueva jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Sandra Barrenetxea Díez, D.^a Arantza González García, D.^a Vanessa Vélez de Pablos y D. Iñigo García Villanueva, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 3 – PP.

aurkeztua, Donostiako iraunkortasunari eta klimari buruzko urteko txostena krisi ekologikoari aurre egiteko tresna komunitario izateari buruzkoa.

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkeztu du, Udalbatza azter dadin. Mozioa 2025eko maiatzeko Lurralde Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Elhuyar Zientzia aldizkariak eman du albistea. Klima-aldaketari buruzko BC3 ikerketa zentroak baieztatu duenez, Europako hiriak atzean geratzen ari dira klima-aldaketari egokitzeko neurrietan. Hain zuzen, nazioarteko beste zentro batzuekin batera egindako ikerketan frogatu dute egokitzapen klimatikoko planen ia %70ek ez dutela funtsik. Ikertzaileen arabera, horrek nabarmen mugatzen du klima-aldaketak sortzen dituen arriskuei aurre egiteko eraginkortasuna. Horrez gain, huts egiten dute gizarte-ekitatean, ez baitituzte kontuan hartzen komunitate kalteberak.

Nature Climate Change aldizkarian argitaratu dute ikerketa. Berez, 2010az geroztik Europako 28 herrialdeetako 885 hiritan egiten ari diren azterketen parte da. Europa, munduko beste eskualdeak baino bi aldiz azkarrago ari da berotzen. Horrenbestez, biztanleek gero eta arrisku handiagoa dute klima-aldaketaren ondorioak jasateko; adibidez, uholdeak edo suteak. Horri erantzuteko, ezinbestekoa da egokitzapen-

Grupo EH Bildu, sobre el Informe anual de sostenibilidad y clima de San Sebastián como instrumento comunitario para hacer frente a la crisis ecológica.

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción trae causa de la interpelación presentada en mayo de 2025 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

La revista *Elhuyar Zientzia* se ha hecho eco de la siguiente noticia: el centro de investigación sobre cambio climático BC3 ha confirmado que las ciudades europeas se están quedando atrás en la adopción de medidas de adaptación al cambio climático. El estudio realizado en colaboración con otros centros internacionales ha demostrado que cerca del 70% de los planes de adaptación climática carecen de fundamento. Según las personas investigadoras, esto limita considerablemente su eficacia a la hora de abordar los riesgos que genera el cambio climático. Además, fallan en la equidad social, ya que no tienen en cuenta a las comunidades vulnerables.

La investigación, que se ha publicado en la revista *Nature Climate Change*, forma parte de los estudios que se vienen realizando desde 2010 en 885 ciudades de 28 países europeos. Europa se está calentando dos veces más rápido que el resto del mundo. Esto hace que la población esté cada vez más expuesta a los efectos del cambio climático, como las inundaciones o los incendios. Para dar respuesta a ello, es imprescindible establecer

planak ezartzea, ekintza zehatzekin, ikuspegi integratzaileekin, datuetan oinarrituta eta jarraipen-mekanismo argiekin.

Donostiak baditu horretarako bitartekoak. Cristina Enea Fundazioko Iraunkortasunaren eta Klimaren Behatokiak, adibidez, Donostiako Iraunkortasunari eta Klimari buruzko Urteko Txostena argitaratu ohi du. Fundazioaren webgunean jasotzen den bezala, "analisi, hausnarketa, behaketa, prospekzio eta planifikazio estrategikorako tresna da Iraunkortasunaren Behatokia, eta bi funtzio berezi betetzen ditu: udalerraren eta bere inguruaren egoeraren analisi zehatz eta zorrotza egitea, eta lurraldean lanean ari diren eragile ezberdinei erabaki-hartzea erraztuko dieten garrantzizko informazioa eta proposamen estrategikoak argitaratzea".

Aipatu, txostena klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta egokitzapenaren ikuspegitik planteatzen dela, eta bere barne-egitura lotu egiten da Donostiako Klima Aldaketaren aurkako Ekintza Planean (DSS Klima 2050) ezarritako jardun-eremuekin. Urteko txostena da, baina argitaratu den azkena 2022ko datuei buruzkoa da, eta 2025ean egonik, 2023ko datuei buruzko txostenak aspaldi behar zuen argitaratua. Are gehiago, 2024ko datuei buruzko txostenak ere aurkeztear egon beharko luke. Maiatzeko batzordeetan horri buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen baietz, 2024ko txostena aurki aurkeztuko zela. 2023ko datuei dagokien txostenaz, berriz, ez zuen ezer esan.

Donostiako Iraunkortasunari eta Klimari buruzko Urteko Txostena funtsezko tresna da

planes de adaptación con acciones concretas, enfoques integradores, basados en datos y mecanismos claros de seguimiento.

San Sebastián cuenta con los medios para ello. Por ejemplo, el Observatorio de Sostenibilidad y Clima de la fundación Cristina Enea publica, cada año, el informe de sostenibilidad y clima de San Sebastián. Tal y como se recoge en la web de la fundación, "el Observatorio de la Sostenibilidad es un instrumento de análisis, reflexión, observación, prospección y planificación estratégica, que cumple con dos funciones específicas: el análisis preciso y riguroso de la situación del municipio y su entorno, y la publicación de información sustantiva y propuestas estratégicas que faciliten la toma de decisiones para los distintos actores que operan en el territorio".

Es preciso señalar que el informe se plantea desde el punto de vista de la lucha contra el cambio climático y la adaptación, y que su estructura interna se relaciona con los ámbitos de actuación establecidos en el Plan de Acción contra el Cambio Climático (DSS Klima 2050) de San Sebastián. Se trata de un informe anual, pero, tal y como se ha señalado, el último hace referencia a los datos de 2022 y, teniendo en cuenta que estamos en 2025, el informe elaborado con los datos de 2023 debía haberse publicado hace tiempo. Es más, el informe sobre los datos de 2024 también debería estar a punto de presentarse. En respuesta a la pregunta formulada al respecto en las comisiones de mayo, la concejala delegada indicó que en breve se presentará el informe de 2024. Sin embargo, no dijo nada respecto al informe relativo a los datos del año 2023 .

El Informe Anual de Sostenibilidad y Clima de San Sebastián es una herramienta fundamental

hiriak aldaketa klimatikoaren edo krisi ekologikoaren erronkari behar bezala aurre egiteko; Behatokia beraren hitzak erabiliz, bere funtzioa "lurraldean lanean ari diren eragile ezberdinei erabaki-hartzea erraztuko dieten garrantzizko informazioa eta proposamen estrategikoak argitaratzea" delako, besteak beste.

Krisi ekologikoa nahiz klima aldaketaren ondorioak areagotzen ari diren honetan, beraz, ulertezina da aurkeztutako azken txostena 2022ko egoerari buruzkoa izatea.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari behar bezalako erantzukizunez joka dezala, atzeratutako txostenak aurtan argitaratuz eta hurrengo txostenak dagokien garaian argitaratzeko konpromisoa hartuz.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, behin 2023 eta 2024ko datuei dagozkien txostenak eskuragarri jarri ondoren, aipatu azterlanak Ingurumenaren Aholku Kontseiluan ez ezik, donostiar guztiei irekiak izango diren saioen bidez aurkeztu ditzala, Klima Larrialdi egoerari aurre egiteko herriarren ekarpena ziurtatze aldera.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

para que la ciudad pueda afrontar adecuadamente el reto del cambio climático o de la crisis ecológica, ya que, según sus propias palabras, su función es "la publicación de información sustantiva y propuestas estratégicas que faciliten la toma de decisiones para los distintos actores que operan en el territorio."

En un contexto de crisis ecológica y de aumento de los efectos del cambio climático, resulta por tanto incomprensible que el último informe presentado se refiera a la situación de 2022.

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que actúe con la debida responsabilidad, publicando este año los informes demorados y comprometiéndose a publicar los próximos informes a su debido tiempo.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, una vez puestos a disposición de la ciudadanía los informes relativos a los datos de 2023 y 2024, presente los citados estudios tanto en el Consejo Asesor de Medio Ambiente como en sesiones abiertas a toda la ciudadanía donostiarra para asegurar su aportación a la situación de emergencia climática.

San Sebastián, a 23 de mayo de 2025

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
Concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Alkate-Udalburuak, Borja Corominas Fisas

jaunak eta Iñigo Garcia Villanueva jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Markel Ormazabal Gaztañaga, Alcalde-Presidente, D. Borja Corominas Fisas y D. Iñigo García Villanueva, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

II.2.8. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, udal pilotalekuen erabilera anitzerako baldintzei buruzkoa.

“Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko maiatzaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hirian hainbat udal pilotaleku daude, asko auzoetako gune estali bakarrenetakoak dira eta puntualki, kirolerako ez den beste erabilera ezberdinak izaten dituzte, hala nola, eskoletako jaialdiak, kontzertuak, auzoetako jaietako egitarauak, e.a.

Azken asteetan eragile ezberdinek jakinarazi digutenez, pilotalekua uzteko garaian baldintza oso ezberdinak ezartzen dira. Adibidez eskola publiko baten ikasturte amaierako jaialdirako

II.2.8. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las condiciones para el multiuso de los frontones municipales.

“Itziar Iturri Arrazola, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en Pleno, consecuencia de la interpelación presentada ante la Comisión de Servicios de las Personas el pasado 19 de mayo de 2025.

JUSTIFICACIÓN

En la ciudad existen varios frontones municipales, muchos de ellos constituyen el único espacio cubierto de muchos barrios y puntualmente se destinan a otros usos, como festivales escolares, conciertos, programas de fiestas de barrio, etc.

A lo largo de las últimas semanas, diferentes agentes nos han informado de que, en estos casos, se establecen condiciones muy diferentes para su cesión. Por ejemplo, para el festival de

erabiltzeko 600 € eskatu dizkie Kirol Patronatuak; beste eskola publiko bati ordea doan uzten zaio. Auzo bateko jaiak antolatzeko 500 €ko fidantza eskatu die Kirol Patronatuak, baina doan lagatzen zaie... hauek azken egunetan ezarri diren baldintza ezberdinen adibide batzuk baino ez dira.

Batzordeetan gai hau landu genuenean, kiroleko eta bizitza osasuntsuko zinegotzi ordezkariak azaldu zigun zein araudi aplikatzen den kasu hauetan, kirolak duela lehentasuna pilotalekuen erabileran, eta aipatutako kasuak aztertuko zituztela zer gertatu den argitzeko.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari doan laga ditzala udal pilotalekuak hiriko eskola publikoek behar dituztenean, kirol ekitaldi "arruntekin" talka egiten ez duten bitartean.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari doan laga ditzala udal pilotalekuak irabazi asmorik ez duten hiriko eragileei, eta ez diezaiera fidantza bat aurrez eskatu, kirol ekitaldi "arruntekin" talka egiten ez duten bitartean. Eta fidantza eskatuz gero, itzul diezaiera berehalakoan.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

fin de curso de un centro educativo público, el Patronato Municipal de Deportes les ha solicitado 600 €, mientras que a otro centro público la cesión del uso del frontón se le hace de forma gratuita. En otro caso, el Patronato Municipal de Deportes ha pedido una fianza de 500 € para organizar las fiestas de un barrio, pero la instalación se les cede de forma gratuita... estos son sólo algunos ejemplos de las diferentes condiciones que se han aplicado en los últimos días.

Cuando planteamos este asunto en comisión, el concejal delegado de Deportes y Vida Saludable nos explicó qué normativa se aplica en estos casos, que el deporte tiene prioridad en el uso de los frontones y que analizarían los casos mencionados para aclarar lo sucedido.

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno de la Corporación insta al Gobierno Municipal a ceder gratuitamente los frontones municipales cuando los centros escolares públicos de la ciudad los necesiten, siempre que no coincidan con eventos deportivos "ordinarios".
- El Pleno de la Corporación insta al Gobierno Municipal a ceder gratuitamente los frontones municipales a las organizaciones sin ánimo de lucro de la ciudad, sin solicitar una fianza, siempre que no coincidan con eventos deportivos "ordinarios". Y en caso de solicitar fianza, que esta se devuelva a la mayor brevedad posible.

San Sebastián, 23 de mayo de 2025

Itziar Iturri Arrazola
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Itziar Iturri Arrazola andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Iñaki Gabarain Gaztelumendi jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Itziar Iturri Arrazola, D.^a Vanessa Vélez de Pablos y D. Iñaki Gabarain Gaztelumendi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º8:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º8:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 9 – (8) EH BILDU, (1)
ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 9 – (8) EH BILDU, (1)
ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5)
PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

aurkeztua, Gizarte Ekintzako txoke planari buruzkoa.

“Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2025eko maiatzaren 19an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean abiatu zuten Gizarte Ekintzako profesionalek zerbitzuaren kalitatea eta saileko lan baldintzak hobetzea asmo zuen mobilizazio dinamika. Urgentziak eta epe ertain/luzerako neurriak konbinatzea eskatzen dute, jasangaitza den eta langileen bizkar erortzen den egoera destentsionatzea ahalbidetuz, baina Gizarte Ekintzak behar duen sakoneko azterketa eta plantila zabalpena helburu. Egoera hau izanik eta astez-aste mantendu den lanuzte eta greba dinamikaren ostean, maiatzean aurkeztu du Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuak, haren aburuz, egoera destentsionatzea bilatzen duen *txoke plana*.

Azken hilabeteen batzordeetan eta udaltzatzen EH Bilduk urgentziaz eta programako kontratazioa baliatuz profesional gehiago kontratatzea eskatu genuenean, hori egitea ezinezkoa zela erantzun du behin eta berriz zinegotzi delegatuak. Haren aburuz, aurrekontuko 1. kapitulua ukitu ezin zelako. Orain, Gizarte Ekintzako txoke planaren baitan, programazko kontratazio bidez 2 administrari kontratatuko direla aurkeztu du Udal Gobernuak. Kopurua ez-nahikoa izateaz

Grupo EH Bildu, sobre el Plan de Choque de Acción Social.

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado 19 de mayo de 2025.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de febrero, las profesionales de Acción Social iniciaron una dinámica de movilizaciones con el fin de mejorar la calidad del servicio y las condiciones de trabajo del departamento. Solicitan que se combinen medidas urgentes con medidas a medio/largo plazo para destensionar una situación insostenible, que recae sobre las espaldas de las trabajadoras, con el objetivo de que se lleve a cabo un análisis en profundidad y se proceda a ampliar la plantilla. Ante esta situación, y tras la dinámica de paros y de huelgas que se ha mantenido semana tras semana, la concejala delegada de Acción Social ha presentado, en mayo, un plan de choque que, a su juicio, busca destensar la situación.

En el último mes, EH Bildu ha solicitado, tanto en comisiones como en pleno, que se contraten más profesionales de forma urgente y haciendo uso del contrato programa, pero la concejala delegada ha respondido, una y otra vez, que eso es imposible, ya que, en su opinión, no se puede tocar el capítulo 1 del presupuesto. Ahora, en el marco del plan de choque de Acción Social, el Gobierno municipal propone la contratación de dos administrativas mediante el contrato programa. Sin embargo, no solo se

gain, kezkatzen gaituena txoke planaren norabidea bera da. Izan ere, finean, administrarien figura toki batean zentralizatza joko da, deiak bertatik jasoz aurrerantzean.

Txoke planak prozesuak arindu eta arreta hobetuko omen du zinegotzi delegatuaren hitzetan, "dei galduak jaistea, prestazio ekonomikoak arintzea, eta aurrez-aurreko arreta hobetzea" bilatuz. Planak kezkatzen gaitu, besteak beste, txoke plan honen osaketan ez dutelako langileen ordezkariak parte hartu eta hori oinarriko akatsa delako. Proposatutako neurriak profesionalen onarpenik ez badu, neurriak efektiboak izateko aukerak oso txikiak izango dira. Gainera, bulegoetan bertan ematen diren dinamiketan administrariak betetzen duten papera ezinbestekoa dela badakigu, teknikariei lana errazten eta lehentasunak markatzen baitituzte eta, kasu askotan, administrariak berak kudeatzen baititu zerbitzura doazen herritarren beharrak; horregatik, figura hauen presentzia bulegoetan txikitzeak ez du arreta hobetuko, kontrakoa baizik. Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren arreta-ereduan ezartzen diren hiritarrarekiko gertutasuna, deszentralizazioa eta atentzioaren eskuragarritasun zein hurbiltasuna kaltetuak izan daitezke plan honekin.

Paraleloki, Udal Gobernuak ari da epe ertain/luzeko neurriak negoziatzen. Profesionalei aurkeztutako proposamena greba batzordeak egindako proposamenetik urrun gelditzen dela dirudi, kopuruetan, eta baita saileko profil batzuei begira egiten den inbertsio hutsalean. Hori horrela, uste dugu

trata de un número insuficiente, sino que nos preocupa la propia dirección del plan. Y es que la figura del personal administrativo se va a centralizar en un único espacio, desde el que, en adelante, se recibirán todas las llamadas.

El plan de choque, en palabras de la concejala delegada, agilizará los procesos y mejorará la atención buscando "reducir las llamadas perdidas, agilizar las prestaciones económicas y mejorar la atención presencial". El plan nos preocupa, entre otras cuestiones, debido a que la representación de los trabajadores y trabajadoras no ha participado en su elaboración, lo que constituye un error de base. Si las medidas propuestas no cuentan con la aprobación de las profesionales, las posibilidades de que estas sean efectivas serán mínimas. Además, es sabido que el personal administrativo juega un papel fundamental en las dinámicas que se generan en los propios centros de atención, ya que facilitan el trabajo al personal técnico y marcan prioridades; es más, en muchos casos, es el propio personal administrativo quien gestiona las necesidades de la ciudadanía que acude al servicio, por lo que reducir la presencia de estas trabajadoras en las oficinas no mejorará la atención, sino todo lo contrario. Los objetivos fijados en el modelo de atención de la Dirección de Acción Social, como la cercanía con la ciudadanía, la descentralización y el acceso a la atención y su proximidad, pueden verse afectados por este plan.

Paralelamente, el Gobierno municipal está negociando medidas a medio/largo plazo. La propuesta presentada a las profesionales parece que se aleja de la propuesta realizada por la comisión de huelga; además, se plantea una insignificante inversión en algunos perfiles del departamento. En este sentido, entendemos

Udal Gobernuak langileen aldetik iristen diren proposamenei irekita mantendu behar duela, eta hiriak datozen urteetan izango dituen erronken neurriko Gizarte Ekintza baterako prestatu, horrek eskatzen duen leheneste ariketa eginez datozen urteetako aurrekontuetan, besteak beste, baina baita ere, sailak hirian betetzen duen funtzioaren eta egiten duen lanaren inguruko azterketa sakona eginez. Edozein kasutan, epe motzeko eta luzeko neurrietan profesionalen eskutik egin behar dugu bidea, egoera gertutik ezagutzen dutenak haiek baitira, eta era berean, haien lan eskergari esker eutsi diolako hondoratu gabe Gizarte Ekintzak orain arte.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txoke planean bermatu dezala bulegoetako arreta kaltetuko ez dela, arreta eredian markatu irizpideak errespetatuz.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari txoke planaren baitan eta programazko kontratazioa baliatuz egin dezala esfortzu handiagoa lan karga gutxitzeko.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari epe ertain/luzera begirako proposamenean jaso ditzala profesionalen egindako eskariak, eta egin dezala bide hori langileen eskutik.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23an

que el Gobierno municipal debe permanecer abierto a las propuestas que se presenten por parte de las trabajadoras y que debe prepararse para una acción social que esté a la altura de los retos a los que se enfrenta la ciudad en los próximos años; para ello, entre otros, deberá realizar un ejercicio de priorización en los presupuestos de los próximos años, así como un análisis exhaustivo de la función y del trabajo que desempeña el departamento en la ciudad. En cualquier caso, para adoptar medidas a corto y a largo plazo debemos caminar de la mano de las profesionales, que son quienes conocen de cerca la situación y quienes, a su vez, han mantenido hasta ahora a flote el departamento de Acción Social, gracias a su ingente trabajo.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que garantice que la atención que se ofrece en las oficinas de acción social no se vea afectada por el plan de choque y a que se respeten los criterios marcados en el modelo de atención.
- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, en el marco del plan de choque, realice un mayor esfuerzo para reducir la carga de trabajo del departamento, valiéndose para ello del contrato programa.
- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a recoger en la propuesta a medio/largo plazo las demandas de las profesionales y a recorrer ese camino de la mano de las trabajadoras.

San Sebastián, 23 de mayo de 2025

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Izar Hernando Ibero andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Maria Jesus Idoeta Madariaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.^a Izar Hernando Ibero, D.^a Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias y D.^a María Jesús Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (8) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (8) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

II.2.10. Kontrol Mozioa, EH Bildu, PP eta Elkarrekin Donostia Taldeek aurkeztua, Manteoko irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzkoa.

“Arantza González García Elkarrekin Donostia taldeko zinegotziak, Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak eta Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten dute Manteoko irisgarritasunari eta mugikortasunari buruz. Kontrol-mozioa hiru taldeek 2025eko maiatzaren 19ko Gune

II.2.10. Moción de Control, presentada por los Grupos EH Bildu, PP y Elkarrekin Donostia, sobre accesibilidad y movilidad en Manteo.

“Arantza González García, concejala del Grupo Donostia, Borja Corominas Fisas, concejal del Grupo Popular y Ricardo Burutaran Ferré, concejal del Grupo de EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL sobre la accesibilidad y movilidad en Manteo. La moción de control es consecuencia de las interpelaciones sustanciadas por los tres grupos

Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioen ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Manteo aldaketa handiak jasaten ari da, eta GOE eraikitzeke lanak modu askotan ari dira eragiten inguruan. Gros auzoko azken espazio librea okupatzeaz gain, inpaktu handia eragiten ari dira auzoko mugikortasunean, bai oinezkoetan, bai ibilgailuetan. Hori dela eta, Manteoko Bizilagunak auzo-taldeak kezka adierazi digu, zenbait jarduketak haien etxeetako sarbideei eragiten dietela eta.

Manteoko bizilagunek hainbat dei egin diete udal-arduradunei akordio bat lortzen saiatzeko, baina orain arte ez dute izan esperotako emaitza.

Hain zuzen ere, Rodil kaletik behera doan eta Nafarroa hiribidearekin lotzen duen erreia kentzeaz gain, Manteo Gros auzoarekin lotzen duten oinezkoentzako eskailerak ere kendu dituzte.

Udaleko gobernu-taldeak proposatzen duen bide-alternatiba da igogailu bat jartzea Okendo kultur etxeke eskaileren ondoan. Neurri horrekin, Manteo eta Rodil kaleetan bizi diren pertsonen Alexandria kaletik joan beharko dute —askoz ere kale ilunagoa eta bakartiagoa—, edo, bestela, Rodil kaleko espaloietan estuak erabili beharko dituzte.

Dena dela, Manteoko Bizilagunak elkarteak argi dauka aurreikusitako alternatibek eta

en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el pasado 19 de mayo de 2025.

JUSTIFICACIÓN

Manteo está sufriendo importantes cambios, la construcción del edificio del GOE está afectando a su entorno de muchas maneras diferentes. De modo que además de ocupar el último espacio libre del barrio de Gros, está teniendo un considerable impacto en la movilidad del barrio, tanto peatonal como en vehículo. En este sentido, desde el colectivo vecinal Manteoko bizilagunak nos han trasladado su preocupación por las actuaciones adoptadas en lo concerniente a los accesos a sus inmuebles.

Los diversos llamamientos realizados desde el vecindario de Manteo a los responsables municipales para tratar de llegar a acuerdos no han tenido, hasta la fecha, los resultados esperados.

De forma que a la supresión del carril de bajada de la calle Rodil que une el barrio con Avenida Navarra, se une la eliminación de las escaleras peatonales que conectan Manteo con el barrio de Gros.

La alternativa viaria que les plantea el equipo de gobierno municipal es instalar un ascensor junto a las escaleras ya existentes en la casa de cultura de Okendo. Dicha medida implicará que las personas residentes en las calles Manteo y Rodil se vean obligados a tener que transitar por la calle Alejandría, mucho más oscura y solitaria, o, en su defecto, tener que utilizar las estrechas aceras de la calle Rodil.

Lo cierto es que desde Manteoko Bizilagunak tienen claro que las alternativas y medidas

neurriek egungo egoera okertzen dutela. Bistan da hiriak eraldatu eta aldatu egiten direla; hori oso ondo ulertzen dute donostiarrek. Ulertzen ez dutena da aldaketek eta eraldaketek egungo baldintzak okertzea.

Ilido horretan, herritar-talde horrek udal-gobernuari egindako eskaeraren helburua da hausnarketa-prozesu bat abian jartzea, auzoari modu aktiboan entzuteko eta irisgarritasun unibertsalaren arloan dagoen arazoa modu bateratuan aztertzeke, helburu hori betetzeko neurririk onenak har daitezzen.

Hori dela eta, behean sinatzen duten zinegotziek KONTROL MOZIO hau aurkezten dute:

1.- Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio azter dezala eta, hala badagokio, behar diren neurriak har ditzala Rodil kalean, Nafarroa hiribidearen eta Alexandria kalearen artean, bi noranzkoak —igotzekoa eta jaistekoa— mantentzeko, behar diren segurtasun-baldintzak hartuta.

2.- Era berean, udal-gobernuari eskatzen dio mantener dezala oinezkoen sarbidea, Nafarroa hiribidea eta Rodil kalea lotzen dituzten egungo eskailerek ahalbidetzen duten moduan, Rodil kalean eta Manteoko zeharbidean bizi diren pertsonen oinezkoen ibilbideak izan ditzaten.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23an

Arantza Gonzalez Garcia
Elkarrekin Donostiako zinegotzia

previstas empeoran su situación actual. Es evidente que las ciudades se transforman y cambian, esto lo entienden perfectamente todos los donostiarros. Lo que no entienden es que los cambios y transformaciones supongan un empeoramiento de sus condiciones actuales.

En este sentido, el emplazamiento realizado por dicho colectivo ciudadano a los grupos municipales se dirige a acordar el inicio de un proceso de reflexión, con escucha activa en el barrio, que permita, desde una lectura conjunta de la problemática existente en materia de accesibilidad universal la adopción de las mejores medidas adoptadas a su entorno urbano.

Por todo ello, los concejales que suscriben formulan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al gobierno municipal a estudiar y, en su caso, implementar las medidas necesarias que permitan el mantenimiento de la doble dirección, de subida y bajada, en la calle Rodil, en su tramo entre la Avenida de Navarra y calle Alejandría, con las debidas condiciones de seguridad.

2.- Asimismo se insta al gobierno municipal a mantener el acceso peatonal de manera similar al que permiten las escaleras actuales que conectan la Avenida de Navarra con la calle Rodil, favoreciendo con ello los recorridos peatonales de las personas residentes en la calle Rodil y Travesía de Manteo.

San Sebastián, a 23 de mayo de 2025

Arantza González García
Concejal Elkarrekin Donostia

Borja Corominas Fisas
Talde Popularreko zinegotzia

Borja Corominas Fisas
Concejal Grupo Popular

Ricardo Burutaran Ferre
EH Bilduko zinegotzia”.

Ricardo Burutaran Ferré
Concejal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Olatz Yarza Garagorri andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D.^a Arantza González García, D. Borja Corominas Fisas, D. Ricardo Burutaran Ferré, D.^a Olatz Yarza Garagorri y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO ARRATSALDEKO ORDU BIAK ETA HAMAICA MINUTUAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS CATORCE HORAS Y ONCE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / LA SECRETARIA: